Astigarragako Udala
Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

# OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2015IPLE0003
**Eguna:** 2015/02/26
**Ordua:** 19:00
**Tokia:** Areto nagusia

**Bertaratuak**

| | |
|---|---|
| - Andoni Gartzia Arruabarrena | BILDU |
| - Maite Olatziregi Esparza | BILDU |
| - Agin Laburu Rezola | BILDU |
| - Ione Olatziregi Mendiorotz | BILDU |
| - Berta Arozena Bergara | BILDU |
| - Raul Redín Hernández | BILDU |
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ-PNV |
| - Ramón Aranzasti Loyarte | EAJ-PNV |

**Bertaratu ez direnak**

| | |
|---|---|
| - Isabel Otero Glorie | BILDU |
| - Bixente Arrizabalaga Bengoetxea | Hamaikabat |
| - Imanol Lizarralde Marín | Hamaikabat |

**Idazkaria**

- Xabin Olaizola Lasa

**Aztergaiak**

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk / Nº | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| **2015eko urtarrilaren 29ko eta otsailaren 4ko akten onarpena** | 1 | Aprobación de las actas de 29 de enero y 4 de febrero de 2015 |
| **HJU 2.5 “Krabelin-Etxeaundi” eremuko Plan Berezia. Behin betiko onarpena.** | 2 | Plan Especial de Ordenación Urbana, relativo a la U.E.U. 2.5 “Krabelin-Etxeaundi” del A.I.U. “Ergobia Auzoa”. Aprobación definitiva. |
| **Gazteentzako aisialdirako lokalak egokitzeko Ordenantza.** | 3 | Ordenanza de los locales de ocio para jóvenes. |

| | | |
|---|---|---|
| **Astigarraga-Zarkumendegi bidegorriaren eraikuntza proiektua** | **4** | Proyecto de construcción de bidegorri: Astigarraga-Zarkumendegi |
| **Udal baratzen emakida eta erabilera arautzeko erregelamendua. Hasierako onarpena.** | **5** | Reglamento de concesión y uso de huertas municipales. Aprobación inicial. |
| **Berdintasun II plana** | **6** | II Plan para la igualdad |
| **Mozioa: martxoak 8 – adierazpen instituzionala** | **7** | Moción: 8 de marzo – declaración institucional |
| **Mozioa: Erregistro Zibilaren pribatizazioa** | **8** | Moción: privatización Registro Civil |
| **Informazioa, galdera eta eskariak** | **9** | Información, ruegos y preguntas |

## Esan-eginak eta erabakiak

Aho batez onartutako presako deklarazioaren ondoren, aste honetako uholdeei lotuta EAJrekin itundu den mozioa gai-zerrendan sartzea erabaki da.

Previa declaración de urgencia adoptada por unanimidad, se acuerda incorporar al orden del día la moción pactada con EAJ/PNV en relación a las inundaciones de esta semana.

**1. <u>2015eko urtarrilaren 29ko eta otsailaren 4ko akten onarpena</u>**

**1. <u>Aprobación de las actas de 29 de enero y 4 de febrero de 2015</u>**

<u>2015-01-29ko akta</u>

<u>Acta de fecha 29-01-2015</u>

Alkateak 3. orriko 6. paragrafoaren ñabardura bat formulatu du, eta “aurkeztu zuela” dioen tokian “jakinarazi zuela” esan behar du.

El alcalde formula la matización a la página 3 párrafo 6º, y donde dice “aurkeztu zuela” debe decir “jakinarazi zuela”.

EAJko Ramon zinegotziaren abstentzioarekin (osoko bilkura horretan ez zen izan), eta gainerako zinegotziek emandako aldeko botoarekin, arestian aipatutako akta onartzen da, adierazitako ñabardurarekin.

Con la abstención del concejal Ramón de EAJ/PNV que no estuvo en la sesión y el voto favorable del resto de concejales se aprueba el acta con la matización precitada.

<u>2015-02-04ko akta</u>

<u>Acta de fecha 04-02-2015</u>

Alkateak <u>7. orriko 3. paragrafoari</u> lotutako ñabardura bat formulatu du:

El alcalde formula la matización a la página <u>7 párrafo 3º:</u>

"alkateak adierazi du ez zuela hitzarmen horren aurka bozkatu, hitzarmen horren aldaketarako baino ez zuela bozkatu, eta berriz ere esan du Plangintza Orokorrak ez duela konpondu herrian sorturiko behar berriei, ez duela konpondu sail……
(nota: Gaztelaniaz ondo dago)

EAJko Zorione zinegotziaren abstentzioarekin (osoko bilkura horretan ez zen izan), eta gainerako zinegotziek emandako aldeko botoarekin, arestian aipatutako akta onartzen da, adierazitako ñabardurarekin.

Con la abstención de la concejal Zorione de EAJ/PNV que no estuvo en la sesión y el voto favorable del resto de concejales se aprueba el acta con la matización precitada.

**2. <u>HJU 2.5 "Karbelin-Etxeaundi" eremuko Plan Berezia. Behin betiko onarpena</u>**

**2. <u>Plan Especial de Ordenación Urbana, relativo a la UEU 2.5 "Krabelin-Etxeaundi"" del AIU "Ergobia Auzoa. Aprobación definitiva</u>**

Hirigintza batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakiak har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de urbanismo, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

Lehena.- Astigarragako Hiri Antolamendurako Plan Nagusiko HJU 2.5 "Krabelin-Etxeaundi" 2.5 HJUren Plan Berezia behin betiko onartzea.

Primero.- Aprobar definitivamente el Plan especial de la UEU 2.5 "Krabelin-Etxeaundi" del Plan General de Ordenación Urbana de Astigarraga".

Bigarrena.- Behin-betiko onartzeko erabakia, baita onartu den Plan bereziaren hirigintza-arauak ere, GAOn eta Gipuzkoan tirada handiena dutenen arteko bi aldizkaritan argitaratzea.

Segundo.- Publicar el acuerdo de aprobación definitiva, así como las Normas urbanísticas del Plan Especial aprobado, en el BOG y en dos de los periódicos de mayor difusión de Gipuzkoa.

Hirugarrena.- Onartu den dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundiko hirigintza-planeamenduko administrazio-erregistrora bidaltzea.

Tercero.- Remitir el documento aprobado al Registro administrativo del planeamiento urbanístico de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Irizpena bozkatu ondoren, aho batez, onartu egin da.

Sometida a votación es aprobada por unanimidad.

**3. Gazteentzako aisialdirako lokalak egokitzeko Ordenantza**

Hirigintza batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakiak har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

Lehenengoa.- Udal arkitektoak bere 2015eko urtarrilaren 27ko datarekin egindako txosten teknikoan aipatzen dituen zehaztapen teknikoak onartzea.

Bigarrena.- Udal arkitektok bere txostenean aipatzen dituen zehaztapen teknikoekin Astigarragako Gazteen Aisialdirako lokalak arautzen dituen Udal Ordenantza behin betiko izaeraz onartzea.

Hirugarrena.- Hartutako erabakia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratzea, ordenantzaren testu osoarekin batera.

Irizpena bozkatu ondoren, aho batez, onartu egin da.

**3. Ordenanza de los locales de ocio para jóvenes**

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de urbanismo, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

Primero.- Estimar las determinaciones técnicas establecidas por el arquitecto municipal en su informe de fecha 27 de enero de 2015.

Segundo.- Aprobar definitivamente la Ordenanza municipal reguladora de los locales de ocio para jóvenes de astigarraga, una vez introducidas las modificaciones propuestas en el informe técnico de fecha 27 de enero de 2015.

Tercero.- Publicar el acuerdo de aprobación definitiva y la Ordenanza en su integridad, en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Sometida a votación es aprobada por unanimidad.

**4. Astigarraga-Zarkumendegi bidegorriaren eraikuntza proiektua**

Obra eta zerbitzu batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakiak har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

Lehenengoa.- Astigarraga-Zarkumendegi bidegorriaren eraikuntza proiektua onartzea.

Bigarrena.- Lur-desjabetzen prozedura martxan jartzea proiektua gauzatu ahal izateko.

Alkateak adierazi du proiektu horrek saneamendu-sarea Zarkumendegira

**4. Proyecto de construcción de bidegorri: Astigarraga-Zarkumendegi**

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de obras y servicios, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

Primero.- Aprobar el proyecto de construcción del bidegorri Astigarraga-Zarkumendegi.

Segundo.- Dar inicio al procedimiento de expropiación de terrenos para la ejecución del proyecto.

El alcalde señala que este proyecto va a permitir llevar la red de saneamiento hasta

eramateko eta sektore horretako sagardotegiak saneamendu-sarera konektatzeko aukera emango duela; adierazi du Aldundiarekin hitzarmena epe laburrean sinatzea espero dutela.

Zarkumendegi, y permitir que las sidrerías de ese sector puedan conectar con la red de saneamiento; adelanta que en breve plazo esperan firmar el convenio con Diputación.

Zorionek adierazi du aldeko botoa emango dutela proiektuak auzotarrei mesede egingo diela ziur daudelako, eta adierazi du beraiek hasiera batean nahiago zutela obra tartez tarte egin, baina gobernu-taldeari aukera bat eman behar diogula.

Zorione interviene señalando que van a votar a favor convencidos que este proyecto es para beneficio de los vecinos, y señala que ellos en principio eran favorables a la realización por tramos de obra, pero tenemos que dar una oportunidad al equipo de gobierno.

Irizpena bozkatu ondoren, aho batez, onartu egin da.

Sometida a votación es aprobada por unanimidad.

## 5. Udal baratzen emakida eta erabilera arautzeko erregelamendua. Hasierako onarpena

## 5. Reglamento de concesión y uso de huertas municipales. Aprobación inicial

Hirigintza batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakiak har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de urbanismo, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

> Lehenengoa.- Astigarragako udal baratzen emakida eta erabilera arautzeko Erregelamendua hasierako izaeraz onartzea.
>
> Bigarrena.- Espedientea Idazkaritza sailera lekualdatzea izapidearekin jarraitzeko.

> Primero.- Aprobar con carácter inicial el Reglamento regulador de la concesión y uso de huertas municipales de Astigarraga.
>
> Segundo.- Trasladar el expediente a Secretaría municipal para que continúe con su trámite correspondiente.

EHBilduk emandako aldeko 6 botorekin, eta EAJ/PNV taldearen 2 abstentziorekin, aurkeztutako irizpena onartu da.

Con 6 votos a favor de EHBildu, y la abstención de los 2 concejales de EAJ/PNV se aprueba el dictamen presentado.

Zorionek adierazi du abstenitu egin direla jendaurreko informazioko fasean hainbat ekarpen egin nahi dituztelako.

Zorione manifiesta que se han abstenido porque desean hacer aportaciones en la fase de información pública.

## 6. Berdintasunerako II. plana

## 6. II Plan para la igualdad

Parte-hartze eta berdintasun batzordearen

Se remite para su aprobación el dictamen

irizpena bideratu da onar dadin, eta bertan proposatzen da Astigarragako emakume eta gizonen berdintasunerako II. Plana onartzea.

de la comisión de participación ciudadana e igualdad, proponiendo la aprobación del II Plan para la igualdad de mujeres y hombres de Astigarraga.

Irizpena bozkatu ondoren, aho batez, onartu egin da.

Sometida a votación es aprobada por unanimidad.

## 7. Mozioa: martxoak 8 – adierazpen instituzionala

## 7. Moción: 8 de marzo – declaración institucional

Alkateak aurkeztu du mozioa eta mozio horretan honako erabaki hauek hartzeko proposatu da:

El alcalde presenta la moción en la que se propone la adopción de los siguientes acuerdos:

Lehenengoa.- Gure herrian biolentziarik gabeko bizitza bizitzeko eremua izateko bitartekoak jarri.

Primero.- Dotar de los medios para que nuestra localidad sea un espacio en el que podamos vivir la vida libre de violencia.

Bigarrena.- Emakume elkarte eta mugimendu feministarekin elkarlana bultzatu.

Segundo.- Promover la colaboración con asociaciones de mujeres y con el movimiento feminista.

Hirugarrena.- Gure herriko emakumeak bizitzea merezi duten bizitza duinak izateko politikak garatzea.

Tercero.- Desarrollar políticas que posibiliten a las mujeres de nuestra localidad vivir una vida digna.

Zorione zinegotziak hitza hartu du eta adierazi du ez daudela ados mozio honetan barne hartzen den diskurtsoarekin eta aurkako botoa emango dutela, eta adierazi du emakumeen bizi-baldintzak ezin zaizkiola egotzi merkatu kapitalistari, emakumeek erregimen komunistetan, adibidez Txinan, bizi duten egoera askoz larriagoa baita. Emakumearen nazioarteko Egunaren deklarazioa ez litzaioke inolako aukera politikori lotu beharko.

Interviene la concejal Zorione que no están de acuerdo con el discurso que se incluye en esta moción por lo que van a votar en contra, y señala que las condiciones de vida de las mujeres no se puede imputar al mercado capitalista dado que la situación de las mujeres en los regímenes comunistas como en China se agrava mucho más. La declaración del día Internacional de la mujer no debería vincularse a ninguna opción política.

Mozioa bozkatu da, eta onartu egin da EHBildu taldearen aldeko 6 botoekin eta EAJ/PNVren kontrako 2 botoekin.

Sometida a votación la moción es probada con los 6 votos a favor de EHBildu y 2 votos en contra de EAJ/PNV.

## 8. Mozioa: Erregistro Zibilaren pribatizazioa

Alkateak aurkeztu du mozioa eta mozio horretan honako erabaki hauek hartzeko proposatu da:

Lehenengoa.- Merkataritza erregistratzaileei Erregistro Zibilaren kudeaketa ematen dion uztailaren 4ko 8/2014ko Errege Dekretu Legearen aurka ager dadin.

Bigarrena.- Halaber, adieraz ditzan bake-epaitegiak eta gaurko Erregistro Zibilaren bulegoak izan behar direla Erregistro Zibilak kudeatzen dutenak, herritarrei zerbitzu publikoa eta dohainikakoa eskainiz, orain eta betiko.

Hirugarrena.- Kontutan izanda aipatutako EDLa indarrean sartuko dela 2015eko uztailaren 15ean eta aurtengo otsailean Eusko Legebiltzarrak onartutako ebazpenarekin bat eginda, udal honek eska diezaion Eusko Jaurlaritzari Erregistro Zibila kudeatzeko eta betearazteko eskumenak jasotzeko negoziazioak azkar ditzan.

Mozioa bozkatu ondoren, aho batez, onartu egin da.

## 8. Moción: privatización Registro Civil

El alcalde presenta la moción en la que se propone la adopción de los siguientes acuerdos:

Primero.- Se posicione en contra del Real Decreto ley 8/2014 de 4 de julio, que entrega la gestión del Registro Civil a los registradores mercantiles.

Segundo.- Manifieste la necesidad de que el Registro Civil se mantenga gestionado por las Oficinas de Registro Civil actuales y por los Juzgados de Paz, y prestando un servicio público y gratuito a la ciudadanía ahora y para siempre.

Tercero.- Que reclame al Gobierno Vasco que, en consonancia con la moción aprobada en febrero de este año en el Parlamento Vasco, acelere las negociaciones para el traspaso de las competencias de gestión y ejecución, habida cuenta que el R.D.L. mencionado entrará en vigor el 15 de julio de 2015.

Sometida a votación es aprobada por unanimidad.

## 9. Informazioa, galdera eta eskariak

Alkateak udaleko talde guztiek itundutako mozioa aurkeztu du, eta bertan honako erabaki hauek hartzea proposatzen da:

1.- Ikusita Udalak uholdeei aurre egiteko martxan jarri dituen neurriak nahikoak izan ez direla, herritarrak sentitzen duten frustrazioarekin eta haserrearekin bat

## 9. Información, ruegos y preguntas

El alcalde presenta la moción pactada por todos los grupos municipales en la que se propone la adopción de los siguientes acuerdos:

1.- Viendo que las medidas adoptadas por el ayuntamiento para hacer frente a las inundaciones no han sido suficientes, nos unimos a la frustración que sienten y al

egiten dugu.

2.- Udalak uholdeei aurre egiteko behar diren neurriak hartzen jarraituko duela, gure lehentasunak honetara bideratuaz.

3.- Azkenik, ibaian ardura duten erakunde guztiei Urumean egin behar diren lanak gehiago ez atzeratzea eta berehala ekitea eskatzen du eta guztion arteko elkarlana baliatuz.

Alkateak adierazi du Astigarragak azken 4 urteetan 5 uholde jasan dituela, eta normala dela bizilagunak frustratuta egotea eta beren haserrea adieraztea. Udalak hartu dituen neurriak ez dira nahikoak izan Urumea ibaiak sortzen duen arazoa konpontzeko, eta eraginpean hartzen dituen Administrazio guztiek hainbat jardun egin behar dituzte Urumea ibaiaren arazoa konpontzeko; Astigarragari dagokionez, ibaiaren kanalizazioa, Ergobiko zubiaren egokitzapena eta abar izango lirateke.

Zorione zinegotziak adierazi du mozioarekin bat datozela, eta uste dute interesgarria izango litzatekeela Batzorde baten deialdia egitea eraginpeko Administrazio guztiek planteatzen dituzten konponbideen berri emateko herritarrei.
Alkateak erantzun dio batzorde hori egingo dela, eta adierazi du aurreikusita dagoela Urumearen bilera bat egitea martxoaren 23an.

Mozioa bozkatu ondoren, aho batez onartu da.

malestar que han manifestado los vecinos.

2.- Que el Ayuntamiento continuará adoptando las medidas necesarias para hacer frente a las inundaciones, dirigiendo nuestras prioridades a tal fin.

3.- Por último, solicita a todas las instituciones con responsabilidades sobre el rio que no retrasen más y acometan inmediatamente las actuaciones que deben realizarse en el Urumea, valiéndose de la colaboración de todos/as.

Señala el alcalde que en 4 años Astigarraga ha sufrido 5 inundaciones y es normal que los vecinos se sientan frustados y manifiesten su malestar. Las medidas adoptadas por el ayuntamiento no han sido suficientes para resolver el problema que está en el Urumea, y como tal tienen que haber actuaciones de todas las Admnistraciones afectadas en resolver el problema del río Urumea, que en lo que afecta a Astigarraga pasa por la canalización del río, resolución del puente de Ergobia,..

La concejal Zorione dice que apoyan la moción y consideran que sería de interés convocar una Comisión para informar a los vecinos de las soluciones que se plantean por todas la Administraciones afectadas.
Contesta el alcalde que se celebrará dicha comisión, y anticipa que se prevee una reunión del Urumea para el próximo día 23 de marzo.

Sometida a votación la moción es aprobada por unanimidad.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarragan, 2015eko otsailaren 26an

**Xabin Olaizola Lasa**
**Idazkaria**